

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

## **ZUHAITZAK MOZTEKO LIZENTZIARI JAGOKON TASEA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **1. Artikulua. LEGE OINARRIA**

Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikulua xedatutakoa gogoan izanda, Lurzoruaren Legearen 178. artikulua egurra ebagiteko lizentzia emotea eskatzen dauela kontuan hartuta eta udal administrazinoko edo titularidadeko bideen erabilera berezia arautzen dauen udal ordenantzeak ezarritakoagaz bat etorrita, Bermeoko udalerrian Ordenantza honetan agertzen diran arauak arautuko dabe zuhaitzak mozteko lizentzia emoteari jagokon tasea.

### **2. Artikulua. ZERGA EGITATEA**

Tasa honen zerga egitatea izango da udal jarduera teknikoa edo administratiboa, mendi publiko zein pribaduetan zuhaitzak moztu eta gero bide publikoetatik egurra arrastan eroateko lizentzia emoteko garatzen dana.

### **3. Artikulua. SUBJEKTU PASIBOA**

1.- Tasa honen subjektu pasiboak dira lizentzia eskatzen daben pertsona fisiko zein juridikoak eta egurra moztu eta arrastan daroenak, beharrezko lizentzia eskatu barik lana burutu dabenean.

2.- Dana dala, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ebagite lanetako kontratistak.

3.- Subjektu pasiboakaz solidarioki erantzungo dabe mozketak egiten diren etxaldeetako jaubeek edo eukitzailleek, eta baita errentadunek be. Honeen kasuan, halan izango da, euren baiezkoko adierazia edo isilbidezkoagaz eta eskubidea urratu barik egin bada mozketea.

### **4. Artikulua. ZERGA KUOTEA**

1.- Lizentziako zenbateko finkoa izango da zerga koutea. 95,00 eurotan ezarten da.

AF – E 36



2.- Lizentzia emon jakola interesdunari udalak jakinarazoten ez deuson bitartean uko egin leikio honek espresuki eskabideari, eta, orduan, lizentzia hori emotean ordaindu behar izango ebanaren % 50ean gitxituko litzakio tasea.

3.- Ustiaketeak kaltetutako baso-pisten, saka-bideen, udal errepideen eta beste elementu komunen egoera egokia bermatzeko fidantzea ipini beharretik kanpo eskatuko da tasea.

## **5. Artikulua. SALBUESPENAK**

Legezko xedapenen batean ezarritako salbuespenak eta hobariak baino ez dira izango aplikagarriak.

Dana dala, lizentzia eskatzen dabenek eskatu eta justifikatu beharko dabez.

## **6. Artikulua. SORTZAPENA**

1.- Tasaren sortzapena eta ordaindu beharra lizentzia eskatzen dan momentuan hasten da, edo lizentziarik lortu barik mozketea eta arrastea egiten danean.

2.- Sortzen eta likidatzen diran kuotak zuzenean ingresatuta ordainduko dira, Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapen Ordenantzan modalidade honetarako ezarritakoa kontuan izanda.

## **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera. BAOean osorik argitaratu ez bada egun horretarako, kontuan izan beharreko data, argitaratzen dan egunaren hurrengoa izango da.